



2021/06/25

ANTOLAKETA BERRIA LEHEN HEZKUNTZAN 2021/22 IKASTURTEAN

Azkeneko urteetako ibilbide metodologikoa dela eta, hurrengo ikasturtean Lehen Hezkuntzako curriculumaren azterketa eta mapoa egingo dugu, jasotako berrikuntza guztiak gure hezkuntza proiektuan txerta ditzagun.

Horrek etapa horretan hausnarketa sakona eta erabaki batzuk hartzera eraman gaitu, besteak beste, Lehen Hezkuntza etapa 3 ziklotan antolatuta egotetik 2 ziklotan egotera, tutoretza indartuz.

KIMU ETA EKI PROIEKTUAK

Lehen Zikloan 1., 2. eta 3. maila kokatuko dira. Berton, Haur Hezkuntzatik datorren lanketaren ildo jarraituz, Kimu proiektua garatuko dugu.



KIMU PROIEKTUA

LEHEN HEZKUNTZA 1.-2.-3.



EKI PROIEKTUA

LEHEN HEZKUNTZA 4.-5.-6.

Bigarren zikloan berriz, 4., 5. eta 6. maila batuko dira eta berton EKI proiektua garatuko da, gerora DBHn ere abian duguna.

Aldaketa hauen inguruko argibide gehiago hurrengo ikasturteko guraso bileretan eskainiko ditugu.